ILUSTRE COLEGIO DE ABOGADOS DEL SEÑORIO DE VIZCAYA
BIZKAIA JAURERRIKO ABOKATUEN BAZKUN OHORETSUA
BILBAO

Bilbao, 16 de enero de 2014

Estimado/a compañero/a:

La Junta de Gobierno ha acordado celebrar un concurso para proceder a la selección de un compañero/a que cubra la plaza de JEFE DE ESTUDIOS de la Escuela de Práctica Jurídica ñPedro Ibarrecheò, para la coordinación del Master de Acceso a la Abogacía que se imparte conjuntamente con la Universidad de Deusto y del Curso de Iniciación a la Abogacía, para apoyar a la Dirección en todo lo relativo a la Formación Continuada de los abogados/as, así como en los proyectos formativos que desde la Escuela se desarrollan en el extranjero.

Las funciones que desarrollará el/la Jefe de Estudios consistirán en asesorar y apoyar a los alumnos en todas aquellas cuestiones que suscita el aprendizaje en la Escuela y el futuro ejercicio profesional, tratando con ellos de manera continuada. Igualmente, hará un seguimiento de las materias impartidas, coordinará la labor de los profesores y supervisará las prácticas que los alumnos realizan en despachos, empresas e instituciones durante la segunda fase.

Por otra parte, y dependiendo de la Dirección, participará en la creación de cursos de formación continuada, colaborará en la coordinación de los mismos, representará a la Escuela de Práctica Jurídica en distintos ámbitos y, en general, se encargará junto con la Dirección de todas las actividades formativas que desde la Escuela de Práctica Jurídica se realicen.

Podrán tomar parte en este concurso todos aquellos colegiados/as que hayan ejercido la profesión al menos los últimos cinco años, valorándose la preparación y experiencia en diversas áreas del ejercicio profesional, la capacidad parar trabajar en equipo, la experiencia en formación de profesionales o en dirección y coordinación de grupos, así como los conocimientos de idiomas, especialmente el dominio de inglés y francés.

Las solicitudes deberán presentarse antes del 31 de enero en las oficinas del Colegio (Rampas de Uribitarte, 3 ï 1ª planta), debiendo acompañar el *Curriculum Vitae* junto con una reseña sobre las razones que impulsan al candidato a solicitar la plaza.

Un cordial saludo,

*JAVIER BOLADO*
*SECRETARIO*

Bilbao, 16 de enero de 2014

Lankide estimatua:

Gobernu Batzordeak "Pedro Ibarreche" Praktika Juridikoko Eskolan IKASKETA BURUA izendatzea adostu du, Deustuko Unibertsitateko eta Bazkuneko Master de Acceso a la Abogacía eta Bazkuneko Curso de Iniciación a la Abogacía koordinatzeko eta zuzendaritzari laguntzeko abokatuen etengabeko prestakuntzari lotutako gaietan eta Eskolak atzerrian garatzen dituen bestelako trebakuntza-proiektuetan.

Ikasketa Buruak ikasleei aholkua eta laguntza eman beharko dizkie Eskolako ikaskuntzari eta etorkizunean egin beharreko lanari lotutako gai guztien inguruan, eta ikasleekin modu jarraituan harremanetan egongo da. Era berean, Eskolan irakatsitako gaien jarraipena egingo du, irakasleen lana koordinatuko du eta bigarren fasean ikasleek bulego, enpresa eta erakundeetan egingo dituzten praktikak gainbegiratuko ditu.

Bestalde, eta zuzendaritzaren esanetara, etengabeko prestakuntzako taldeak sortzen parte hartuko du, talde horiek koordinatzen lagunduko du, Praktika Juridikoko Eskola esparru desberdinetan ordezkatuko du, eta oro har, zuzendaritzarekin batera, Eskolak egiten dituen prestakuntza-jarduera guztien gaineko ardura izango du.

Lehiaketa honetan azken bost urteetan gutxienez lanbidean aritu diren elkargokide guztiek parte har dezakete. Elkargokideek lanbidearen esparru desberdinetan duten prestakuntza eta esperientzia, taldean lan egiteko gaitasuna, profesionalen trebakuntzan eta taldeen zuzendaritzan eta koordinazioan duten esperientzia eta hizkuntzak jakitea (batez ere, ingelesa eta frantsesa menperatzea) baloratuko dira.

Eskaerak urtarrilaren 31a baino lehen aurkeztu behar dira Bazkunaren bulegoetan (Uribitarte erranplak, 3 ï 1. solairua), *Curriculum Vitae*arekin batera, hautagaiak lanpostua eskatzeko dituen arrazoiei buruzko idazkitxoa entregatu behar da.

Jaso agur bero bat,

***JAVIER BOLADO***
***IDAZKARIA***